

Euskadiko Unibertsitate-kirolaren jaialdia Getxon

2016/02/25

Otsailaren 23an jokatu ziren Euskadiko Unibertsitate-Kirol txapelketak Zadorako kirol instalakuntzetan (Getxo). EHU, Deustu eta MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikasleak izan ziren protagonistak eta goiz osoan zehar lehiaketan murgilduta aritu ziren. 400 gaztetik gora elkartu ziren hainbat kirol modalitatean lehiatzera. Besteak beste, eskubaloia, errubia, futbola, saskibaloia, paddela, squasha, frontoiko modalitateak eta beste hainbat.

Giroa bikaina izan zen eta goiz ederra pasa zuten guztiak elkarrekin.

Mila esker partaide guztiei!!



MONDRAGON UNIBERTSITATEKO eskubaloiko taldeak